

Lan poltsako lan eskaintza irekiak



Asociación
Armeria Eskola
Elkartea

Isasi, 36. 20600 Eibar (Gipuzkoa) / 633 90 93 88
lanpoltsa@armeriaeskola.eus / www.armeriaeskola.eus

Hauexek dira momentu honetan zabalik ditugun lan eskaintzak:

PROZESUAREN ETA PRODUKTUAREN KALITATE-TEKNIKARIA:



ELGOIBAR

Egin beharreko lanak:

Ekoizpen-prozesuan eta produktu bukatuan kalitatea ziurtatzea, eta ekoizpena IATF 16949/ISO 9001 arauari, kalitate-estandarrei eta bezeroaren, segurtasunaren eta ingurumenaren eskakizunei egokitzen zaiela ziurtatzea.

Produktuaren zehaztapenak, arauak eta kontrol-planak interpretatzea, produkzio-plantan aplikatzen direla zaintzea eta akatsak dituzten piezen erreklamazioak aztertzea eta kudeatzea.

Produkzioari eta kalitateari, lehengaien harrerari eta kalibrazioaren kudeaketari lotutako dokumentu-kudeaketa egitea.

Produkzioan arriskuak detektatzea eta izan daitezkeen arazoei edo akatsen agerpenei aurreratzea, serieko produkzio-prozesuan piezetan izandako gorabeherak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

Serieko prozesuan piezetan ezarri beharreko neurri zuzentzaileen ondoriozko ekintza-planen jarraipena egitea.

Txostenak prestatzea kalitate-arloari jakinarazteko erosketa-piezen erreklamazioei buruzko produkzioko eta kalitateko foroetan eta barne-sistemetan.

Formakuntza: Goi-mailako formakuntza-zikloa mekatronikan, mekanizazioan, diseinuan edo robotikan.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Kontratu mota: Obra- eta zerbitzu-kontratua.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Soldata: 24.000 €-tik gorakoa.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

ARTEZKETAKO LANGILEA:



MALLABIA/ZALDIBAR

Egin beharreko lanak: Artezteko makinan planopean lan egin.

Formakuntza: Mekanizazioko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Artezketa lauan edota zubi-makinetan eta makinan bertan programatzen (zuzenketak, parametro-alaketak, etab.).

CNC makinekin esperientzia izatea eta aurreko esperientzietan egonkortasuna izatea baloratuko da.

Ezagutzak: Planopean lan egiten jakitea.

Profila: Esperientzia handiko pertsona seniorra.

Kontratu mota: Kontratu egonkorra proiektioarekin.

Soldata: Negoziagarria hautagaiaren balioaren arabera.

Egoitza: Durangaldean.

Inkorporazioa: Irailean.

LANTEGIKO LANGILEA:



ELGETA

Egin beharreko lanak: Abrazaderak egitea, piezaren luzaerara moztea prentsan edo tornuan, tornuan mekanizatua egitea, haria ematea eta tolestea hotzean edo beroan.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Kontratu mota: Txanda-kontratua.

Lanaldia: Lanaldi osoa goizean.

Lan-ordutegia: 06:00etatik 14:00etara.

Soldata: 1.454,30€ gordin hilean.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa, baina komenigarria da. Hara ere, karneta izan arte enpresara igo ahal zaio.

Inkorporazioa: Irailean.

BUKAERA ETA ESPEDIZIOETAKO TEKNIKARIA - PINTORE INDUSTRIALA:



BEASAIN

Egin beharreko lanak: Bezeroek jasoko dituzten motorren eta sorgailuen akabera eta bidalketa lanak egitea, bere zeregin nagusiak garbitzea, prestatzea eta margotzea izaten.

Formakuntza: Goi-mailako formakuntza-ziklo amaitua, egin beharreko lanekin lotuta.

Esperientzia: 3 urtekoa pistolaz margotzen industria-sektorean, karrozerian eta abarretan.

Garabiak erabiltzen esperientzia izatea baloratuko da.

Profila: Jarrera ona, proaktibitatea eta lan egiteko gogoia duen pertsona.

Kontratu mota: 6 hilabete inguruko behin-behineko kontratua gaixotasunagatiko baja bat betetzeko.

Lanaldia: Lanaldi osoa 2 txandetan.

Lanpostu hutsak: 3.

MEKANIZAZIO TEKNIKARIA:



MATIENA

Sektore ezberdinetarako osagaiak fabrikatzen dituen industria enpresak mekanizazio teknikari bi behar ditu bere Durangaldeko instalazioetarako.

Egin beharreko lanak:

Tornu eta mekanizatu zentroetan makinen erabilpenean piezak fabrikatzea.

Fabrikazioaren kalitatea bermatzea.

Oinarrizko makina mantentze lanak eta erreminta aldaketak burutzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi- edo goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina positiboki baloratuko da.

Profila: Zuzendaritzarekin, gainerako taldeekin eta kolaboratzaileekin harreman osasuntsuak sortzeko gaitasuna, proiektuarekiko konpromisoa eta iraunkortasuna duen pertsona.

Soldata: Lanbide profilaren eta esperientziaren arabera.

Inkorporazioa: Berehalakoa proba aldiaren ondoren.

BOBINAIKO TEKNIKARIA:



BEASAIN

Egin beharreko lanak: Taldeari errotoreei, estatoreei eta beharrezko konexioei dagozkien harilkatze-lanetan laguntzea.

Formakuntza: Elektrizitatearen arloko goi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Profila: Pertsona ordenatua, serioa eta lan egiteko gogoia duena.

%33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen ziurtagiria izatea baloratuko da.

Hizkuntzak: Euskara jakitea baloratuko da.

Kontratu mota: Gaixotasunagatiko bajaren ordezkapenagatiko behin-behineko kontratua.

Inkorporazioa: Berehalakoa.

Lanpostu hutsak: 2.

SOLDATZAILEA MUNTATZAILEA:



BERGARA

Egin beharreko lanak: Piezen fabrikazioa eta soldadura egitea, eta, ondoren, bezeroen instalazioetan muntatzea.

Formakuntza: Soldadurako profesionaltasun-ziurtagiria.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Kontratu mota: Aldi baterako kontratua, finkoa izateko aukerarekin.

Lanaldia: Astelehenetik ostiralera 07:00etatik 15:00etara.

Soldata: Gipuzkoako hitzarmen siderometalurgikoaren arabera.

Gidabaimena izatea: Bai.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa.

Disponibilitatea: Berehalakoa.

AUTOMOBILGINTZAKO PROZESUETAKO TEKNIKARIA:



ZALDIBAR

Egin beharreko lanak:

Muntaia eta soldadurako prozesu automatizatueta Zaldibar, Izurtza eta Iciarreko plantei euskarria ematea.

Mihiztatze-prozesuen ingeniartza-arduradunari laguntzea.

Soldadura-prozesuak definitzea eta horiei euskarria ematea, eskaintzak hasten direnetik proiektua homologatu arte, eta unean-unean ekoizpen- eta kalitate-sailei laguntzea.

Formakuntza: Goi-mailako formakuntza-zikloa, ahal dela metal-eraikuntzetan, edo bestela, fabrikazio mekanikoko diseinuan.

Ezagutzak: Soldatzeko prozesu nagusietan eta planoak interpretatzen.

Hizkuntzak: Ingelesa jakitea baloratuko da.

Profila: Taldeko pertsona eta helburuetara orientatuta.

Kontratu mota: Profilaren arabera, praktiketakoa, DUAL-ekoa edo kontratu egonkorra, helburua pertsona formatzea eta finko bihurtzea izango litzateke.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Lan-ordutegia: 08:00etatik 13:30etara eta 14:30etatik 17:00etara eta ostiraletan 8:00etatik 14:00etara gutxi gorabehera.

Soldata: Pertsonaren profilaren arabera.

Automobil propioa izatea: Ez da beharrezkoa, baina baloratuko da.

Bidaiatzeko prest egotea: Bai.

MEKANIKARIA:



MALLABIA

Egin beharreko lanak: Mekanikari-lanak egitea.

Formakuntza: Instalazio elektriko eta automatikoetako erdi-mailako formakuntza-zikloa.

Esperientzia: Ez da beharrezkoa.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Soldata: 18.000€ - 24.000€.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

PRODUKTU-TEKNIKARIA:



ABADIÑO

Egin beharreko lanak:

Enpresako "produktuei" buruzko ezagutza guztia kudeatzen laguntzea.

Produktuaren azterketa teknikoa egitea, hau da, prestazio teknikoak, aplikazioak, egon daitezkeen arazoak, lehiakideekiko abantaila komertzialak, etab.

Produktuaren arazoak ikertzea, diagnostikatzea, ebaztea eta konpontzeko eta prozedura estandarrei jarraitzeko irtenbideak zehaztea.

Dokumentuen kudeaketa egitea, hau da, itzulpenak, fitxa teknikoak, eskuliburuak, zatiketak, ziurtagiriak, argazkiak, etab.

Hornitzaileei egindako erosketa-sarrerak kudeatzea eta produktuaren kalitatea egiaztatzea.

Bezero profesionalen (azken erabiltzaileak ez direnen), enpresa banatzaileen edota alokatzaileen kontsulta teknikoak egitea, baita lanpostuarekin lotutako beste zereginak ere.

Formakuntza: Lanpostuarekin lotutako goi-mailako formakuntza-zikloa.

Hizkuntzak: Ezinbestekoa da ingelesez jakitea eta C1 titulazioa.

Profila: Profil tekniko industrial argia duen pertsona, ekipoen eta makinen zatikatzeak ulertzeko eta garatzeko gaitasuna, programa informatiko desberdinak (Outlook, Photoshop, etab.) erabiltzeko

arintasuna, zereginen jarraipenean zorroztasuna eta etengabeko ikaskuntzarekiko kezka duena.

Hainbat zeregin aldi berean kudeatzeko gai den pertsona ordenatua izatea eskatzen da.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa zatitua.

Soldata: Hitzartzeko.

Egoitza: Durangaldea, ahal dela.

Inkorporazioa: Berehalakoa.

MANTENTZE-LANETAKO LANGILEA:



ABADIANO

Zerbitzu teknikoko eta mantentze-lanetako teknikari gisa egin beharreko lanak:

Tresneria industrial, produktuak eta zerbitzuak instalatzea eta abiaraztea.

Gorabeherak eta matxurak konpontzeko euskarri teknikoa ematea.

Erabiltzailearentzako formakuntza.

Makinen eta instalazioen mantentze prebentibo, zuzentzaile eta prediktiboko lanak egitea, erregistratuta.

Gorabeherak eta matxurak konpontzeko talde-lankidetzak.

Egindako jarduketan erregistroa (gorabeherak, matxurak, jarraipena eta konponketa).

Logistikaren arloan laguntza gisa egin beharreko lanak:

Era guztietako materialak (lehengaiak, ordezeko piezak, amaitutako produktuak, etab.) jasotzea, antolatzea eta egokitzea, mugitzea eta bidaltzea, inbentarioak eta eskatutako dokumentuak erregistratzeko jarduerak eginda.

Formakuntza: Lanbide Heziketa ibilgailuen mantentze elektromekanikoan, edo elektromekanikoan, edo automobilgintzan, edo instalazio elektriko eta automatikoetan, edo robotika industrialean, edo elektrizitatean.

Esperientzia: Makina industrialen mantentze-lanetan.

Kontratu mota: Iraupen zehaztugabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa.

Lan-ordutegia: Zatitua (ordutegia: 09:00etatik 13:30etara eta 15:00etatik 18:30etara, gutxi

gorabehera).

Soldata: Hitzartzeko.

Gidabaimena: Bai.

MANTENTZE MEKANIKOKO TEKNIKARIA:



ELGOIBAR

Egin beharreko lanak: Industria-prentsak mantentzea eta konpontzea.

Formakuntza: Mekanizazioko erdi-mailako formakuntza-zikloa.

Ezagutzak: Praktikoak soldaduran, goi mailakoak hidraulikan eta planoak interpretatzen.

Esperientzia: Gutxienez 2 urtekoa industria-ingurune batean mantentze mekaniko lanetan, ahal dela metalaren sektorean.

Kontratu mota: Kontratu mugagabea.

Lanaldia: Lanaldi osoa txandaka.

Soldata: 24.000€-tik gorakoa.

Automobil propioa izatea: Bai.

Bidaiatzeko prest egotea: Ez da beharrezkoa.

--

Gure lan eskaintzaren bat interesatuz gero, bidali zure CV-a lanpoltsa@armeriaeskola.eus helbidera eta enpresari bidaliko diogu.

Edozein zalantza baduzu gurekin jar zaitezke harremanetan.

Informazio gehiagorako: Eider / Malen.

943 20 32 44

lanpoltsa@armeriaeskola.eus